

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



■ ILAR EGUNA

## Pintxopoteak emango dio hasiera bihar Ilar Egunari

Zazpigarren urtea beteko du aurten eta igandea da egun haundia, azokarekin

ZAZPIGARREN aldiz egingo dute Ilar Eguna bihartik igandera eta Azoka bereziak emango dio bukaera, asteari. Kanpotarrak erakartzeko baliotza izan du hein batean, eta Baratz Elkarteak Udalaren babesarekin antolatzen du. Bihar hasiko da, pintxopotearekin.

### Ilarra herrian zela, «frogatuta»

Aurkezpenean, Zorione Etxezarraga alkateak jardunaldiaren hasierak gogorarazi zituen. 2012an burutu ziren aurreneko aldiz eta ilarraren garrantzia aipatu zuen: «indusketek frogatu dute Astigarraga betidanik egon dela lotuta ilarrarekin».

Charo Zapiain sukaldariaren esanetan: «lehen, esaera batek zion 'Astigarragan, jan; eta Donostian, lo'. Eta horretan, ilarrak garrantzia nabarmena izan du: «sukaldean, ilarra inportantzia bizikoa izan da. Produktu txikia da, koloretsua, zapoetsua... baina zaila!». Horregatik, «lanean» jarraitu behar dela argi dauka. ■

VII. ILAR EGUNA

Maiatzaren 17tik 20ra

- **Hilak 17, osteguna:** Ilar pintxopotea, Astigarragako tabernetan eta ilarpintxo onenaren lehiaketa.
- **Hilak 19, larunbata:** Baratzen bisita gidatua, 11:00etan udaletxeko kontzejupetik abiatuta. Ondoren, hazia eta landareari buruzko tailerra Hazieraren eskutik (Cristinaenea Fundazioko hazien artxiboa) kontzejupean bertan.
- **Hilak 20, igandea:** 09:30etan, Txistularien diana. 11:00etatik aurrera, Ilar Azoka Berezia Joseba Barandiaran plazan: ilar postuak, Luis Irizar eskola hiru sukaldariak unean egindako ilar pintxoak dastatzeko aukera, Euskal Herri osoko produktuak salgai, haurrentzako zurezko jolas erraldoiak eta Idoia Lizeaga bitxi tailerra.

■ NAZIOARTEKO MUSEOEN EGUNA

## Familiantzako oka jokoa antolatu da etzi Sagardoetxea museoan

Auirten goizean 'Museo hiperkonektatuak: ikuspuntu berriak, publiko berriak da eta 17:00etan hasiko da jokoa. Sagarra eta sagardoaren kulturako galdera eta probak egongo dira.

NAZIOARTEKO Museoen Eguna ospatuko da etzi eta Astigarragako Sagardoetxean ere ekitaldia antolatu da. Museo hiperkonektatuak: ikuspuntu

berriak, publiko berriak lempen Sagardoetxeak ospakizun honekin bat egingo du.

Familiantzako jarduerak berezi bat eskainiko du 17:00-

etatik 18:00etara: Sagardoetxeako oka jokua, familiantzako oka jokua, sagarra eta sagardoaren kulturako galdera eta probekin. Euskeraz

izango da Sagardoetxean eta izena eman behar da 943 55 05 75 telefono zenbakian edo [info@sagardoarenlurraldea.eus](mailto:info@sagardoarenlurraldea.eus) helbide elektronikoan. ■

■ BETERRI KM.0

## Tokiko produktuak saretzeko bidean, Beterri

Beterri-Buruntzako sei Udalen proiektua da eta bertako produktuak erabiltzen dituzten janari denda, jantoki publiko zein taberna eta jatetxeak 'Beterri Km 0' zigiluarekin bereizi eta identifikatuko dira.

BETERRI Buruntzako Udalek, Beterri Km 0 proiektua martxan jarri berri dute, nekazal ekoizpena kontsumitzaileen esku jartzeko helburuarekin. Horretarako, janari denda, jantoki publiko zein taberna eta jatetxeetan bertako produktua saltzea erraztuko da.

Leku hauek, Beterri Km 0 zigiluarekin bereizi eta identifikatuko dira, kontsumitzaileak bertako produktua modu erraz batean eskuratu ahal izan dezan.

Hernaniko Plazako arkupe aurrean egin zen aurkezpena. Bertan egon ziren Jon Zulueta Beterri-Buruntzako Udalen lehendakaria, Andoni Egi Hernandez Tokiko Garapenerako Agentea, Oier Iurramendi Karabeleko ekoizle eta Juan Cruz Alberdi Behemendiren izenean.

Beterri-Buruntzako ekoizleen sarea osatu eta tokiko produktuak sustatzea du helburu hiru urte bete dituen proiektuak. «Herri, instituzio, merkataria, lehen sektoreko ekoizleak



'Beterri Km 0' ekimeneko sustatzaileak atzo Hernaniko Plazan eginiko aurkezpenean.

elkartzen dituen sarea bultzatzea du helburu» esan zuen Oier Iurramendik. «Nekazariak sortzea ere bada beste lanetako bat» esan zuen Juan Cruz Alberdik. «Astigarragan jarri ditugu lurrak nekazari izan nahi dutenen eskura» azpimarratu zuen Behemendiko arduradunak.

Hernaniko zaharren egoi-

tzan eta haurreskolan klausula ambientalak dago eta sarean daude. «Zaharren egoitzan bertako produktuarekin 200 menu ematen dira eguerdian eta 130 afari gauean ematen dira» esan zuen Andoni Egiak. Eta hori zabaltzea da beste helburuetako bat. «Lizitazioak amaitzen doazen bezala kontratu berrietan klausula ambientalak

jartzeko joango gara. Bertako ekoizleak eta produktuak lehentasuna izatea da helburua».

Oier Iurramendiren ustetan tokiko ekoizpena, kontsumoak sustatu eta denentzako bideragarria izango da ekimena. «Orain arte dugun katalogoa zabaltzea nahi dugu. Bederatzi ekoizle daude oraingoz». ■

**Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikalari gehiago behar dira.**

Memoria gorde, oraina bizi, etorkizuna eraiki, izan Kronikalari!

**ABANTAILAK**

1. Errenta aitortzearen dedukzioa.
2. Deskontuak aurrez zehaztutako ekitaldietan.
3. Zozketak: aurrerantzean Kronikalarien artean.

Urtean 25 €

**Gerizpe**  
Kafetegia-Okindegia

682 156 795  
Kale nagusia 5, Astigarraga

**ISABEL**  
Janari denda  
COVIRAN

Tomas Alba 11,  
Astigarraga  
943 55 23 67

**ATZA**

Nagusia 32, ASTIGARRAGA  
943 55 49 89  
[ikatza@taberna.com](mailto:ikatza@taberna.com)

☎ **TAXIAK:** 622 222 343 | **UDALZAINGOA:** 943 335230 - 699 487 587 | **DYA:** 943 46 46 22 (Hernani) | **AUTOBUSAK:** Areizaga: 943 452708 | **ANBULATORIOA:** 943 33 56 44  
 ✚ / **Egunez:** **ASTEAZKENA Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941** | **OSTEGUNA A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** | **OSTIRALA Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941** | **LARUNBATA A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** | **IGANDEA A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** | **ASTELEHENA A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** | **ASTEARTEA Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauetz: Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941**

**EGURALDIA**  
**GAUR** Ostarteak arratsaldean zabalduko dira gehienbat. Goizaldean eta goizean goiz lainoak izango dira nagusi kantauri isurialdean, eta baliteke euri langarra egitea bertan. **Min.10° / Max.16°**  
**BIHAR** Antzera jarraituko du giroak. Zeruan, ostarteekin batera, behe-lainoak ikusten jarraituko dugu, hodei horiek kantauri isurialdean ugariagoak izango dira. **Min.10° / Max.17°** (euskalmet)

## ■ SAN ISIDRO EGUNA



Idi probek Foru Plaza betetzen dute urtero eta arratsaldean Zamalbiden egin zen saioa.

### Baserritar eta kaletar ugari San Isidrotan

San Isidro festak giro ederrean igaro dira Astigarragan eta Zamalbiden, ekitaldi ugariarekin. Emariko neskak, idi probak, bertsolariak, meza, bazkariak, haurrentzako jokoak.. izan zituzten aurreko asteburuan eta baita ere atzo. Idi probak bildu zuen jende gehien Foru Plazan eta herri kirol ekitaldiak Zamalbiden asteburuan. Atzo mezaren ondoren salda beroaz eta bertsoez gozatu zuten. ■



Salda beroa hartu zuten atzo Zamalbidetako eliza atarian.

## ■ UDALA PRENTSA OHARRA

# Emakumeon Plazako proiektu urbanistikoa martxan jarri da

«Plazaren planean parte hartu duten astigartarrek herrira egokitutako modelo berri bat elaboratu dute» dio Udalak.

ASTIGARRAGAKO Udalak laister jarriko du martxan Emakumeon Plazaren reurbanizazioaren proiektua, azkenengo Zerbitzu eta Obretako batzordean adierazi zen bezela. Azken proiektua parte hartze prozesuan ibili diren astigartarrek egingo da eta plazari funtsa eman nahi dioten elementu desberdinak ditu.

«Udal gobernuak izaera propioa eman nahi zion Emakumeon Plazari, birgaitu bilzteko egokia izan dadin eta erreindikazio gune izateko berdintasun gaitetan. Horre-

gatik, Udalak parte hartze prozesua ireki zuen eta bertan emakumeak eta herriko eragile desberdinek parte hartu zuten, baita bolondres eta zorian aukeratutakoek» diote Udaletik.

Prozesua parte hartze prozesuetan espezializatutako enpresa batekin batera eraman zen aurrera eta genero gaitetan esperientzia duen arkitekto batekin. Bi sesio eta gero, bizilagunek aurkeztutako lau proiekturen artean eztabaidatu eta gero, modelo berri bat egin zen non ele-

mentu berriak gehitu zitzaizkion hasieran aurkeztutako proiektuari.

Plazak erreindikazio gune bat edukiko du erdialdean eta bertan hiru zatitan banatutako murala egongo da. Zati bat finkoa da, bestea trugarria eta hirugarrena Harrituz elkartearantz. Estalita gune bat ere egongo da eta gune berdeak ere bai. Baita jardinerak trafikoa geratzeko balioko dutenak behar diren. Aparkalekueri dagokionez ilaran jarriko dira eta ez baterian edo zeharka. ■

## ■ GURE ESKU DAGO

# Joseba Barandiaran plazan, etzi festa

Giza katearen berri emango da 19:00etan hasiko den festa giroko ekitaldian.

ASTIGARRAGAKO Gure Esku Dagok Festa egingo du etzi, 19:00etan hasita, Joseba Barandiaran plazan. Bertan eman ahal izango da izena, ekainaren 10eko Giza Kate-rako, Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen: *Eman eskua etorkizunari* lelopean. 100.000 pertsonatik gora bildu nahi dira.

Duela hiru aste hasi ziren gaia zabaltzen Astigarragan eta izena emateko mahaiak jartzen. Giza Katean 1,5 kilometroko zatia osatzea da helburua, elkarri eskutik helduta, Aginaga inguruan.

Eskuak eta zapiak, kilometro eta erdi lotzeko erabiliko dira eta 600 astigartar

inguruk joan behar dute.

**Etziko festarekin ekimena plazara eraman nahi dute** Aurretik, etzi ekimena plazara eraman nahi da. Bertan, giza Katearen berri emango dute, bideoa ikusi, zer den azaldu, izena nola eman, Astigarragak eskuz esku zein zati osatu behar duen...

Mahaia jarriko dute izena emateko, zapiak erosteko, autobuseko txartela erosteko. Eta hori guztia festa giroan. Bertsolariak izango dira, musika.

Eta mokadutxo ere izango da: sardina erreak eta sargardo upelen bat. Astigartar guztiak gonbidatuta daude. ■

## ■ OIALUME SARRERAK

### Urteurrenerako, salgai eta zozketan

Oialumen 75garren urteurrena ospatzeko Gozategi eta Anje Duhalderen kontzertua antolatu da, maiatzaren 26an, eta egun horretarako sarrerak salgai jarri dira. Bertan 15 euroan erosi daitezke eta aurretik 12 euroan hurrengo denda edo tabernetan: Orbela (Tolosa), Kixkal (Hernani), Oialume (Hernani), Amazkar (Oiartzun), Rekalde (Donostia), Maitena (Ziburu) eta Gozategi frutadendan (Orio). Online musikazale.com-en ere erosi daitezke. Bestetik Dobera Kronikak lau sarrera jarriko ditu zozketan. Binaka zozketatuko dira Kronikariak (bazkideak Kronikariak dira) artean maiatzaren 22an. Beraz, ordura arte denbora dauka nahi duenak Kronikari lagundu, eta bide batez, zozketan sartzeko. ■

## ■ KIROI TABLA ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		
Mut. Ereg. Preferentia	Mariño-Mundarro	1-1
Mut. Ereg. 1go maila	Mundano-Ebartzanak	1-1
Mut. Jubenik 1go maila	Elgoibar-Mundarro	2-3
Mut. Infantilak Ohor. maila	Mundano-Hondarribia	1-2
Mut. Infantil Teknikak	Santo Tomas Lizaso-Mundarro	2-3
SASKIBALOA		
Nsk. Gipuzkoako 1go maila	Eskoriatza-Mundano La Salle	59-44
Mut. Junioren 1go maila	Añorga-Mundano La Salle	33-77
Nsk. Kadeteak	Arri BK-Mundano La Salle	38-34
Mut. Infantilak	Iurie Taberna-Mundano La Salle	63-18
ESKU PELOTA - Gipuzkoako Lau 1. erdiko Txapelketa		
Kadeteak 1go maila	Alcanas-Ekain Lizaso	22-8
ESKUBALOA		
Nsk. Kadeteak	Mundano-Legazpi	18-8